

kin lotu-lotua dago: erabat teologiazko kontzeptua da eta fedezko erantzuna eskatzen du.

Honela defini daiteke mirakulua: Bila-kaera historikoaren lege-mugak hautsi eta *izadiko indarrak gainditzen dituen gertakari nabarmena, inguruan harridura nahiz beldurra sortzen dituen eta fededunek jainkozko ahalmenaren adierazgarritzat hartzen dutena.

Jainkoagandiko indartzat hartzen da, bada, mirakuluan agertzen dena; horregatik mirakulua jainkozko eraginaren --mirarigilearengan duenaren-- seinalea da *ebanjelioetan, e.b.

Erljio gehienek ezagutzen eta aitortzen dituzte mirakulua, bereziki beren fundatzaileengan, *santuengan, etab.

Ik. Izugarria, zer; Misterio liluragarria; Erljio-fundatzailea; Zeinua.

Miraria

Ik. Mirakulua.

Mirarigintza

Sin.: Taumaturgia

Gizon-emakumeren batzuk harrigarritzko obrak eta *mirakulua egiteko duten ahalmen oparoa eta joera da mirarigintza. Beren nahierara erabiltzen bide dute mirarigileek edo taumaturgoek ahalmen hori; baina batzutan badirudi, ezkutuko indarra dela, mirarigileak berak nahi gabe ere, ihardun diharduena. Antzinateko hainbat jenderi aitortu izan diote honelako indarra eta ahalmena. Zenbait kristau-santuri ere taumatugo edo mirarigile deitura ematen diote, Ekialdean bereziki.

Ik. Mirakulua; Adurra; Mana.

Misioa

Latinetiko hitza da, bidalketa edo igorpena esan gura duena.

Horren esanahi jatorritzkoa eta funtsezkoa egintzarena da: hots, norbait eginkizunen baterako bidaltzea; horretarako eskumena duenak, alegia. Egintza adierazteko bidalketa ere esaten da, hain zuzen ere. Ondorioz, ordea, eginkizuna bera adierazten du, "goitik" hartua eta "ezarria": mandatua, alegia.

Erljio handien eratzailen artean, Jesus, Buda eta Mahomet dira Bidali edo misiodun behinenak; Jainkoak bere ordezkari herriarengana bidaltzat hartzen bait dituzte fededunek, salbamen-mezua eta -irakaspena zabaltzera eta gizon-emakumeei *salbamenera-

ko bidea irekitzera. *Judaismoan eta *kristautasunean, berriz, oinarri-oinarrizkoa da misioaren kontzeptua.

Kristau-teologiaren arabera jainkozko misioa deitzen da, Hirutasuneko Pertsonetako bat beste batek gizakiren batengana edo giza elkarteren batengana bidaltzea, Hirutasuneko barne-harremanen arabera gertatzen dena: Aitak Semea mundura bidaltzen du; Semeak *Izpiritu Santua bidaltzen die *apostoluei eta Elizari. Ik. Hirutasun txit santua; Jainkoaren Semea; Jesukristo; Aita Jaungoikoa.

Misioa deitzen da, gizakiren batek Jainkoagandik egitekoren bat hartzen duenean ere: profeta-misioa, etab. Esangura hauxe du bereziki Itun Berrian, Jesukristok bere apostoluak *Ebanjelioa zabaltzera eta *bataioa ematera bidaltzen dituela esaten duen. Hain jabeturik daude apostoluak beste norbaitek emandako mandatua eta eginkizuna betetzen ari direla, non "bidalia" (=apostolua) hitza beraien izen propio bihurtzen bait da.

Apostoluekin batera eta horien gainean, Eliza bera mundura bidalia da, Jesukristoren mezua zabaltzeko eta Haren salbama gizon-emakume eta Herri guztiei eskaintzeko. Apostolu-misioa eta Eliz misioa funtsean Jainkoagandik direla aitortzen dute Kristauek, Eliz *hierarkiaren bitartez emanda ere. Ik. Ministeritzak; Apostolua.

Elizaren izatearen funtsean dago, beraz, misioa; horren oinarritzko dimentsioetakoa da. Zera esan nahi du horrek: bere izatasuna, eginkizuna eta eskumena Jesukristogandik dituela, alde batetik, eta, bestetik, berez dagoela Eliza *munduari eta gizon-emakume guztiei bidalia, eta horiei zor diela Jainkoagandiko mezua eta salbama.

Horregatik, Elizak elkartetik kanpo daudenei kristau-fedea zabaltzea misio-ekintza edo zuzenki *misioak deitzen da. Berez, gizon-emakumeei buruzko edonongo eta edonolako egintza salbagarri misioaren izenean betetzen du Elizak.

Azkenik "mandatu kanonikoa" deritza latinezko "missio canonica"ri, elizabarruko *ministeritzaren bat betetzeko bateren batek hierarkiarendik eskumena eta eginkizuna hartzeari.

Ik. Ebanjeliazioa; Mandatu kanonikoa; Orde-nazioa; Deiera; Misio-teologia; Herri-misioa.

Paulo Agirrebaltzategi

Misio diozesiarra

Sin.: Elizbarruti(aren) misioa

Diozesi bakoitzak edo zenbait diozesiren